

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA




ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO
IKASKUNTZA



**Adrián
Celaya
Ibarra**



13

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



1995



EUSKO
IKASKUNTZA

Adrián
Celaya
Ibarra

Egilea: **Autor: Adrián Celaya Ibarra**



Remigio Mendibururen brontzezko eskultura
Escultura en bronce de Remigio Mendiburu

CELAYA IBARRA, Adrián

Adrián Celaya Ibarra / [itzulpena Luis Manterola]. - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 1995. - 68 p. : il. 21 cm. - (Manuel Lekuona Saria = Premio Manuel Lekuona; 13). - Texto euskera - castellano. - Premio Manuel Lekuona 1995

ISBN: 84-87471-78-1

1. Adrián Celaya Ibarra - biografía 2. Bibliografía - Adrián Celaya Ibarra I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III. tit.

Hauen laguntzarekin: Arabako Diputazio Forala, Bizkaiko Diputazio Forala, Gipuzkoako Diputazio Forala, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurilaritza.


EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia

ISBN: 84-87471-78-1

Depósito Legal: S.S. 418/95

Fotocomposición e impresión: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

Datu biografikoak	5
Datos biográficos	25
Une gogoangarriak	45
Momentos memorables	45
Bibliografía	61



Aintzinsolasa

Nire biografia. Neronek idatziko dut edo besteren bati utziko diot? Horra Gregorio Monrealek nire bizitzaz idatz nezan eskatzean agertu zitzaidan zalantza.

Izan ere, nork ezagutuko du nire bizitza neuk baino hobeto? galdetu nion nire buruari. Hala bada, lanari ekin nion kementsu, bidera irtengo zitzaizkidan oztopoetan erreparatu gabe.

Oroz gain, nire historia zehatza izan beharko da. Eta nire bizitzaren zoko-inguru guztiak agerian jarri beharko ditut? Inork eskatu ezin didan aitortza orokorra izango litzateke halakoa, eta bertatik diot nire bizitzak, zalantzarik gabe, inori erakustera behartua sentitzen ez naizen alderdi intimoak dituela. Nahiz eta, pentsaketan gehiegi egon gabe, bizi izandakoaz lotsatzeko arrazoirik ez dudala uste izan.

Gainera, gizalegearen gutxieneko zentzuak inpartziala izatera behartzen nau eta ez da erraza, nork bere burua juzkatzen duenean, neutral jokatzeari. Zailtasun gaindiezina ematen du, baina, nire iritziz, irakurri behar nauena aske da bere irizpide propioa moldatzeko. Nahikoa da gertakariak ahalik eta objetibotasun handienean ematen saiatzea eta horretan ahaleginduko naiz. Eta kontaktaren guztizko aldebakartasun hori saihestearren, Rafael Ossa Echabururi eskatu diot berak nahi duena gehi edo ken dezala orri azpiko oharretan. Ez dut ezkutatu denek ezagutzen duten nire adiskidea denik; halakoa ez denaren iruzkinak aparteko testuan ager litezke.

Guzti horregatik nire azalpenak oroitzapenen itxura izango dute, halakoetan autoreak normalean balio positiboak nabarmentzen ditu, eta komeni ez zaiona ezkututzen. Agintzen dut, hala ere, egia hotz-hotzean esaten ahaleginduko naizela.

Azken batean, biografia baino areago, nolarebait, aitortza izango denez, baimena emango didazue metodo kronologiko zorrotza alde batera utzirik, interesgarri izan daitezken puntuei kontu egiteko, hau da, nor naizen, eta nola eta zergatik iritsi naizen naizen bezalakoa izatera. Helburu horrek kontaketa zenbait ataletan partitzera behartzen nau:

- Nire bizitza pertsonala
- Nire bizitza akademikoak
- Nire ideiak

Agian norbaitek hezkuntzaren inguruko obsesio moduko zerbait aurkituko du testu honetan, halako ikasbiderako joera, baina horrelakoa naiz ni, arazoa, munduak duen arazo nagusia hezkuntza delako ideiak, funtsezko ideiak, obsesionatua den gizona.

Nire bizitza pertsonala

Nire gurasoak oso pertsona apalak izan ziren. Bi-biak errentan harturiko baserrietatik zetozen.

Aita, Adrián Celaya Eguileor, Zeberioko Etxeandi baserrikoa zen. Hamalau urte zituela Bilbora iritsi zen Sierra (gaur Buenos Aires) kaleko janaridenda batean morroi gisa lan egiteko. Soldaduzka Burgosen egin ondoren, zeregin zenbaitetan aritu bide zen (badakit igeltsero gisa lan egin zuela Olimpia zinemaren eraikuntzan) eta azkenik Sestaoko "Aurrera" langileen kontsumo kooperatibako arduradun postua eskaini zioten. Bertan lan egingo zuen hil arte, kooperatiba zen janaridenda xume hura kontsumoaren alor guztiak ukitzen zituen lau etxebizitzako konplexu bilakaturik.

Agian inork ez dit sinetsiko, Aita ezagutu dudak gizon bikainena dela esaten badut, baina behin eta berriro errepikatzen ahal dut gauza bera. Zeberion oinarritzko eskolan harturiko heziera soilaz horniturik, kooperatiba hura moldatu eta Urbinaga eta Simondrogas eskualdeko bizitzaren egiazko erdigune bilakatu zuen. Kooperatibako kideetarik askok ondo dakite, gainera, nolatan ahalegindu zen haiei laguntzen momentu zailetan, bereziki hogeita hamargarren urteetako krisi gogorrean, gerra zibilean eta ondoko urteetan.

Hitz gutxirekin, baina etsenplu onak emanez predikatzen zuen moralak zenbait oinarri zituen: zintzotasuna, lana eta lagun urkoari laguntzen ahalegintzea, haren ustetan kooperatibismoaren izpiritua zena.¹

Ama, Leoncia Ibarra Beraza, Begoñako Zurbaran baserrian jaioa zen. Aitona maizterra zen eta hogeigarren urteetan baserria besterendu zelarik,

1. Adrián Celayaren aitaren nortasunaz, merezi du zerbait gehiago esatea. Euskaldun osoa, ongile hutsa, ez da ezer hoberik haren arrazaren alurria zehazteko —orri oinetan bada ere— ondoko bertsoak baino, gure olerkari handiak eta haren laguna izan zen Kepa Enbeita bertsolariak jarriak. "Enbeita'tar Kepa. GURE URRETXINDORRA", 1971n "Laurak Bat" Elkarteak, Ameriketako euskal elkargoetan zaharrenak argitaratu zuen izenburu horretako obran euskal bertsolari nabarmenatariko baten produkzioa aurkitzen da, Aita Onaindiak bildua.

oraingo Zurbaran auzoa eraikitzeko, baserriarekin eta haren inguruan jabeak utzi zion lur puska txiki batekin gelditu zen. Amak ere guztiz oinarritzko heziketa izan zuen eta sakonkiro erlijiosoa zen, zentzurik onenean, ez baitzen errituetan eta formetan gelditzen, baizik eta kristautasunaren oinarritzko ideietan sinesten zuen, eta hori bere haurrei igaro arazten saiatu zen.

Ezkondututik zirenean, Aitak Sestaoko kooperatibaren lan egiten zuen jadanik, baina etxebizitza Lutzanan (Barakaldo) aurkitu zuten, "La Baracaldesa" kooperatibaren eraikuntzan. Eta han jaio nintzen ni, semerik zaharrena, 1917ko Maiatzaren 10ean. Zenbait hilabete geroago Sestaora aldatu ziren eta langile herri hartan (Rivas kalea, 23. zk.) sortu ziren nire bost senideak. Bertan pasa nuen haurtzarora eta gaztarora.

Mutiko eribera nintzen ni. Amak noizean behin lehen haurtzarora jasan nituen gaixotasunen zerrenda aipatzen zuen. Zorigaitz hura nola edo hala aldenarazi nahiz, Zeberiora eraman ninduten aldi batez, baina ondorioak aski nolabaitekoak izan bide ziren. Nolanahi den, Institutuko urteetan aldian behin krisia jasan ohi nuen, oka egiten hasi eta ezin geratu, lehenbizi behazuna botaez, eta nazka handia ematen zidaten forma odoltsu batzuk gero. Horrek mediku asko ezagutarazi zidan, eta azkenik Cesáreo Díaz Emparanza jn., keinu zakarrekoa baina guztiz eskuzabala, bai eta Justo Garate jn., gerra

ADRIAN ZELAYA'RI

<i>Zeberio'ko seme jatorra</i>	<i>Zu zelan bixi ete ziñian</i>
<i>Ene Adrian Zelaya</i>	<i>Arduraz nenbillan beti</i>
<i>Gizon zintzoa, gizon arteza,</i>	<i>Eta lenguan itandu neutsan</i>
<i>Beti euskaldun garbia</i>	<i>Orko aingerutxo bati</i>
<i>Maitasunezko biotz ederrik</i>	<i>Ta berak alai erantzun eustan</i>
<i>Ederrenaren jaubia</i>	<i>"Adrian...oso ederki!"</i>
<i>Gauza gustien gañetik bet</i>	<i>Onegaz zenbat poztu ninduan</i>
<i>Zuzentasunen zalia</i>	<i>Neuk baño bestek ez daki</i>
<i>Biotz biotzez opa dautzut ba</i>	<i>Jarraitu bada, elbururaño</i>
<i>Zorion amai bagia</i>	<i>Zorioneko bideti</i>

Ni makal samar...Neure urdallau
"Asidos" bete -beteta
Garratza dauken gauza gustiak
Daukodaz galerazota
Gozoki asko biar ei dot nik...
Nun dago,baña, gozatza?
Bost astian be gaimel ez gozatz
Ikusi barik nago ta?
Utsune onek illuntzen daustaz
Urdalla eta biotza

denboran soldaduzkatik libratu nahi izan ninduen. Egia esan, gaitza ez zen desagertu harik eta, gerra zibila bukatu eta zenbait urtetara, Piniés Doktorearen tratamendua praktikan jarri nuen arte.

Uste dut izeba Ruperta izan zela Zeberion irakurtzen eta idazten erakutsi zidana. Oinarrizko eskola Astilleros del Nervión-ekoa izan zen, Sestaon; bertan ezaguturiko lagunekin bizitzako urte onenak bizi izan nituen eta bertan ere Matilde Antona and., ereduako maistra hura, aurkitu nuen. Zer zuen Matilde andreak, berak erakutsitako gauzak oraindik ere nire oroimenean hain araztasun miragarriak ager daitezen? Berak "gogoeta egiten" erakutsi nahi zigun eta ikasi nituen guztietan ez zegoen ezer arrazoitua eta frogatua ez zenik, matematika alorrari dagokiona bereziki, horretan bainenbilien ni sendoen. Eskola-urte horietan, orobat, Udal Musika Akademian ikasi nuen eta Victor Miranda jaunak, hango zuzendariak solfeoaren hasi-masiak erakutsi zizkidan. Musika nire bizitzaren osagai garrantzitsua izan da; nire baitan beti doinu bat bizi dela deritzat.

Matilde andreak kontseilatu zien gurasoei Bilboko Institutura bidal nintzaten batxilergoa egiteko eta berak prestatu ninduen, beste hiru lagunekin batera, sarrera-azterketa pasa ahal izateko. Horrenbestez, munda berri bat zabaldu zitzaidan 1927ko apirilaren 1ean, Bilboko Institutuko eraikuntza berri hartako atetik sartu nintzenean; Institutua garaiko bakarra zen Bizkaia osoan eta orduan inauguratu zen, Hezkuntza Publiko eta Arte Ederretako ministroa bertan izan zelarik.

Ahaztezineko urteak izan ziren eta berehala hitz egingo dut haietaz. Batxilergoa 1933an bukatu nuen eta Ministeritzak ikasturte hartan amaitzen zuten ikasleentzat zenbait bekatarako deialdia egina zuen berriki, bekadunak nahiko lukeen Unibertsitatean eta Fakultatean ikasteko. Beka horietako bat egokitu zitzaidan Madrilgo Unibertsitatean Zientziak ikasi ahal izateko, baina ze gutxi nekien nik orduan zeinen bestelakoa izango zen nire bidea.

Gobernua eta ministroa aldaturik, bekak bertan behera utzi ziren aurrekontu-zailtasunak zirela eta; hala bada, etorkizuna bestela planteatu behar izan nuen. Gurasoek nahikari berezia zuten ni industria ingeniari izan nendin, Bilbon eskola baitzegoen, baina ni lerro zuzen bat egiteko gauza ez nintzen eta Marraskia, itxuraz, Bilboko Eskolako benetako harresia zen.

Irtenbide bakarra Irakaslego ikasketak egitea zen. Bazen Errepublikak sorturiko ikasketa-plan bat, Plan Profesional izenekoa; bertan sartzeko batxilergoa eskatzen zen eta gainera lehiaketa-oposizio bat egin beharra zegoen, behin ikasketak amaituz gero (hiru ikasturte teoriko eta beste bat praktikoa) Maisu postu bat ziurtatzen zelarik.

Sarrera-probak gainditu nituen. Plan Profesional haren helburua prestakuntza pedagogiko sakona ematea zen. Kultura prestakuntzari begira ez zen inolako ikasgai berezirik, baizik eta batxilergoan ikusitako ikasgai guztien metodologia esplikatzen zen, Pedagogiarekin eta haren Historiarekin batera, Filosofia eta Psikologia ikasgaiak irakasten zirelarik. Plan haren ezarrera zaila zen, irakasleoa ez baitzen prestatua hura emateko eta lehengo Normaleko irakasle askok (emakumeak gehienbat) batxilergoan ikusitako matematika, fisika... berberak esplikatzen zizkiguten. Denbora behar zen egoera hura hobetzeko.

Urte askotan Normaleko egun haiek denbora galdutzat hartu izan dut, baina bizitzan aurrera joan ahala, garbiago ikusten dut bertan gauza guztiz garrantzitsuak ikasi nituela, izpiritua ia gauza guztiei irekia izan ohi den adin batean, 16-19 urte bitartean. Lehenengo eta behin, bazen Filosofia irakasle bikain bat, Cubierta jauna, existentziaren funtsezko arazoetan pentsarazi zidana, eta han ere baziren plan berri hartara jartzeko ahaleginak egin zituzten emakume irakasle batzuk. Esaterako, historia irakasleak bizitasun handia ematen zion ikasgaiari eta nik Bizkaiko Historiaren Metodologia bat burutu nuen azkenean. Hura ausardia nirea!²

1936an nire lagunak agurtu nituen Plan Profesionaleko hirugarren ikasturtea bukatu ondoren eta ez nuen praktika-ikasturtea baizik eskas gerra zibila hasi zenean. Hemeretzi urte nituen.

2. Ez du ematen horrenbesteko denik. Celayaren bizitzaren, pentsamenduaren eta obraren gorabeherak kontuan hartuz, esan daiteke, aitzitik, bere ikasleaz nahikoa igerri egin zuela irakasle horrek. Gure pertsonaia gorde egin duen dokumentazio oroigarri kuttunen artean, ondoren azaltzen den iritzia irakurri ahal izan dut, berak aipatzen duen Historiaren Metodologiako lan-koadernoaren amaieran ezarria:

"Adrián Celaya Ibarra diszipulu guztiz maiteari, kontseilatzen dizut Historiaren Metodologiako funtsezko arazoak aztertzen eta sakontzen jarrai dezazun, zentzu honetan aparteko zerbait egingo duzulako segurtasun osoan.- Funtsezkoa ulertzeko, antzemateko ahalmenak, praktikan egin daitekeena eta bidezkoa dena eratoritzeko gaitasunak bere fruituak emango ditu etorkizuneko eskolan.- Izan konfidantza zure baitan eta ez utzi zure prestakuntza lan kontzientea egiteari, berriro diotsut.- Esandakoa egiten baduzu, egunen batean eskertuko dizkidazu kontseilu hauek.- 'Eta zaren bezala sentituko zara'.- Historiaren Metodologia ikastaldiko ikasle gisa guztiz nire gogobetekoa izan zara.- Etorkizuneko eskolaz interesatua naizenez, nire apaltasunean, haren alde sutu lan egiten dudanez, atsegin handia sentitzen dut nire aurrean eskolako Irakaskuntza errealtate zoriontsua egingo duten baloreak ikusten ditudalarik.- Bilbo, 1935eko Ekainak 10.- Historiaren Metodologiako Irakaslea.- B. Encarnación García"

Bistan denez, iritzi horrek argikusmena erakusten du, denbora aurrera joan arau Adrián Celaya berezi behar zuen errealtatearen aurrikuspen zentzua, maisu gisa, Zuzenbide irakasle gisa eta, guzti horren bidez, gure Historiaren benazko ikertzaile gisa. Gainera, obra idatzi baliotsua duen irakaslea. (R.O.E.)

Ez nuke gehiegi luzatu nahi gerraren aipamenetan, gaia ez baita batere atsegina. Gureganaino alde bateko zein besteko albisteak iristen ziren, guduen berri ematen zigutenak, baina baita krimen sinestezinez mintzo zirenak. Aitak, beti bere familia inongo politikan nahas ez zedin saiatu zelarik, laster erabaki zuen bi alderdietan barkaezinezko izugarrikeriak obratzen ari zirela eta, errepublikazaleen aldeko begikotasuna somatzen bagenion ere, hura ez zela gure gerra adierazi zigun. Arrazoia zuela uste dut, zeren eta gerra, politika jarduera asko bezala, ez baita herriarentzat, baizik eta herria dela halakoak jasaten dituen. Nolanahi den ere, nire anaia Paco batailoï abertzale batean sartu zen eta ni, betiere gizon eribera baitnintzen, gerrara joatea erokeriatzat hartuko zen.

Dena den, Bilboren aurkako erasoak hasiz gero, zenbait lagunekin batera Barakaldoko Gordexola batailoïaren koartelean izena ematera joan ginen. Ariketa militarrek egiten hasi nintzen baina laster goitika hasi nintzen berritoki eta koarteleko medikuak Bilboko kontsultara bidali ninduen. Garate doktoreak epaimahai medikoaren esku jarri ninduen eta horrek zerbitzua egiteko gai aurkitu ninduen, baina Barakaldoko medikuari niri lizentzia luzea ematea gomendatu zion. Lizentzia horrek Bilbo Francoren tropek mendean hartu arte iraun zuen.

Horrenbestez, garaileek mobilizatu ninduten. Harrigarria bada ere, nik ez nuen gaitzaren inolako sintomarik somatzen sukarrarekin batera egun batzuk irauten zuten okada haiek iritsi arte. Garellanoko koartelean aurkeztu behar nuen egunean anbulantzia ateratu behar izan ninduten etxetik eta aldi luze batez aztertu ninduten, baina ni oso ongi nintzenez, Zaragozara bidali ninduten eta handik Palenciara, Flechas Negras zirelakoan batailoïra, espainiarrek eta italiarrek osaturiko brigadara alegia. Eta horrela, gerra amaitu arte.

Ahal izan nuen bezain laster, ikasteko luzapena eskatu nuen eta 1939ko Irailean Madrilan aurkeztu nintzen Errepublikan sortua zen Pedagogia Sailean izena emateko gogoz. Fakultate hura, alabaina, itxia zuten, frankismoak hezkuntzaren alorrean garatu zuen zorigaitzeko Hezkuntz politikaren ondorioz. Beti ere unibertsitate karrera bat egin nahirik, Zuzenbidean eman nuen izena, ikasketa haiek irakaskuntza librearen bidez egin errazagoak iruditzen baitzitzaizkidan.

Eta hori izan zen abokatua izateko arrazoia. Lehen bi ikasturteak Madrilan egin nituen, ikasturte trinkoak deitu zirenak, eta 1942. urterako Zuzenbidean lizentziatua nintzen. Aurretik, Plan Profesionaleko maisu gisa nituen eskubideak berretsi egin nituen eta falta zitzaidan ikasturte praktikoa ere

burutu nuen, ikasturte erdira murriztua bazen ere, ikusiz nola prestakuntza pedagogikorik batere ez zuten milaka "alférez provisional" haietarikoak Plan Profesionaleko guztiok baino aurrerago jartzen zituzten eskalafoian; Plan profesional hura, esan gabe doa, ezabatu egin zuten. Sestaon eman zidaten behin behineko lanpostua eta Elgeron (Trapaga) behin betikoa, eta bertan lan egin nuen maisu nazional gisa 1946ra arte.

Ondoko urratsa oposizioak egitea izan zen. "Inspectores del Timbre" direlakoak prestatu nituen, baina denbora aurrera zihoan eta hartarako deialdirik ez zen kaleratzen; 1944an, ordea, Eskualdeko Epaitegiak sortu ziren eta oposiziotara atera ziren. Programarik gabeko oposizioa zen eta hori nire gustukoa zen, buruz ikasi beharra beti gorrotatu baitut. "Inspector del Timbre" izateko ideia alde batera utzirik, ahalegin guztiak beste bide horretara zuzendu nituen. Postu bat eskuratu nuen eta 1946ko Urrian nire lehen lanpostuaz jabetu nintzen, Galdakaoko Epaitegiatz, alegia.

Oso harrera ona izan nuen eta Bilboko eta Durangoko abokatuekin harremanetan sartu nintzen, eta erlazio bikainak mantendu ditut haiekin bizitza osoan. Jendeak kontrakoa pentsatzen badu ere, nik beti uste izan dut Epailearen lankide onena abokatu ona dela, kasua sakon aztertu eta froga leialtasun osoz aurrera eramaten duten horiek, alegia. Uste honetatik datorkit horiekiko harreman ona.

1949an beste oposizio bat egin nuen, Udal epaile izateko, eta Bilboko 1. Udal Epaitegira bidali ninduten. Bertan egin nuen lan 1981era arte.

1950eko Urriaren 11n María Cruz Ulibarri Aristirekin ezkondu nintzen, Sestaokoa bera ere, eta Destuko San Ignazio auzoan finkatu genuen gure egoitza. Nire bizitzaren funtsezko osagaia dudan María Cruzi zenbat zor diodan ezin nezake zehar. Lau seme-alaba izan genituen, hiru emakume eta gizon bat, gaurko egunera arte zortzi biloba eman dizkigutenak. Horiek nire bizitzaren alderik ederrenak dira.

1951. urtean, Ignacio Artaza jaunak eta Díaz de Acebedo Aitak Deustuko Unibertsitatean eskolak emateko aukera aurkeztu zidaten. Nire ekimenei bide emateko lan alor egokia aurkitu nuen Deustun. Nazioarteko Zuzenbide Pribatua eta Zuzenbide Zibila izan ziren eman nituen ikasgaiak. 1952tik Aita Bernaola ahaztezinaren zuzendaritzapean zen Merkataritza Unibertsitatean irakatsi nuen; eskola zaharreko gizona zen hura, baina hezitzailearen funtsezkotasunak biltzen zituena: bere lanera erabat emana izatea, ezkutaturik mantentzen saiatzen baina haren indarra zen ikasleekiko maitasuna eta izpiritu irekia, behar zen momentuan zuzendu ahal izateko.

1965ean Madrilgo Unibertsitate Zentraleko Zuzenbide Fakultatean aurkeztu nuen doktore tesia, "Lege zibilen gatazkak Bizkaian", Francisco Bonet jaunak zuzendua. Epaimahaiak, gerora haren adiskidetasunarekin ohoratuko ninduen Federico de Castro jauna txostengile zela, "cum laude" kalifikatu zuen. Zenbait aldiz jaun horren mintegian egona naiz eta irakaspen horiek egokiak izan dira niretzat.

Nire tesiari esker, lurralde askotako foralistekin harremanetan sartu nintzen: Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Baleareak, Galizia. Haietarik gehienek Zuzenbide Zibil propioa, gutxienez, garatzeko gauza izango zen autonomia politikoa lortu nahi zuten beren lurraldearentzat. Irakasle bikainekin erlazioan nintzen eta haien artean, honekin inor ahaztu nahi ez dudala, José Luis Lacruz Berdejo zena gogoratu nahi dut orain, Unibertsitate ofizialeko katedra baterako lehiatzeko animatzen ninduen eta harekikoa bihotzezko adiskidetasuna izan zen. 1976ko Martxoaren 26an Justiziako Ministeritzaren Dekretu baten bidez Kodifikazio Batzorde Nagusiko batzordekide izendatu ninduten.

1976an, halaber, Gipuzkoa eta Bizkairako Administrazio Erregimen Berezia aztertzeko Juan Carlos Erregeak bere lehen gobernu-egintzetariko batean sorturiko Batzordearen aholkulari izendatu ninduen Deustuko Unibertsitateak. Horrek jurista eta politikoekin harremanak izateko aukera eman zidan, haien artean Bilboko Merkataritza Ganbaran nik antolatuturiko lantalde batean biltzen ginenak nabarmenduko nituzke; hango bilkurak Enrique Guzmán, Ganbarako Lehendakariaren ekimenez sortu ziren, berak Korporazioko zerbitzuak nire esku jarri zituela. Batzordeko lanek ez zuten proiektaturiko erregimen berria ekarri, zeren eta, Madrilgo bileretan egiaztatzen zenez (Instituto de Estudios Locales delakoan), edozein deszentralizazio motaren aurrean ministeritzako funtzionarioek jarritako erresistentzia gaindiezina baitzen. Nire ustetan, hala ere, lan haiek guztiz onuragarriak gertatu ziren geroko euskal autonomia osatzeko.

Orobat, Kontseilu preautonomikoaren garaian, Kontzertu ekonomiko posiblea negoziatzen zuen Batzordeko kidea izan nintzen, berau ere aurrekoaren antzeko arrazoiengatik gauzatu ez zena.

Hirurogeita hamargarren urteetan Euskal Herriaren Adiskideak elkartean sartu nintzen, Juan Ramón Urquijoren eskutik, Euskerazaleak elkartearen sorrera Batzordean ezagutu nuena, horren zuzendaria Jesús Oleaga zelarik, beste adiskide handi bat. Euskal Herriaren Adiskideak elkartean, bada, Bizkaiko Batzordean sartu nintzen eta bertan jarraitzen dut gaur egun. Urquijok Elkartearen jitea aldatu zuen, Estatutuaren bidea ezbairik gabe onartuz, artean oraino oso eztabaidagarria zela, eta Elkartea euskal munduan

sartzea bultzatu zuen. Elkarteko Zuzendaria izan nintzen 1981tik 1983ra eta Bizkaiko Batzordeko Lehendakaria zenbait alditan.³

1978an bizirik ziren Eusko Ikaskuntzako bazkideek lantalde bat osatu zuten Elkartea berriro abiarazteko xedearekin, eta talde hartan ere sartu ninduten. Bertako guztiak ados jarririk, zenbait ukitu egin nituen arautegian, zuhurtziaz eskema tradizionalen mantentzea egoki iruditurik, eta erreforma horiek defendatu nituen Gasteizen eginiko batzarrean. Lehen aldian Zuzenbide Saileko Lehendakaria izan nintzen.

Orobat, Juan María Gómez Mariaca probintziako aldun jaunak sustatu eta Andrés Mañaricua jaunak zuzendu zuen Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Departamentuaren sorreran esku hartu nuen. Andrés Mañaricua nire bizitzaren une askotan aurkitu dut eta ia beti euskararen aldeko ekimenen bat zela medio, hala nola lehen motorra José Luis Goiti doktorea izan zuten euskal Antropologiaren Asteetan; haren omenaldian hitzaldi bat emateko ohorea izan nuen Bizkaiko Aldundiak "Bizkaitar Bikaina" izendatu zutenean.

Nire epaile bizitzari dagokionez, 1970ean Bilboko Erregistro Zibil batuaeren eraketaz arduratu nintzen, lehena Bartzelonaren ondoren, eta Erregistro hura zuzendu nuen 1981era arte, urte hartan Durangoko Lehen Instantziako eta Instrukzioko Epaile izendatu nindutela. 1984an Bilboko Lehen Instantziako 4. Epaitegirako izendatu ninduten eta 1985ean Aginpide Judizialeko Kontseilu Nagusiko batzordekide hautatua izan nintzen, izendun jurista gisa, 1985 – 1990 bosturtekoan.

Agintaldi hori amaiturik, eta karrera judizialek erretiraturia nintzela, berriro Deustuko Unibertsitatean aritu nintzen Zuzenbide Zibila azaltzen harik eta 1992an jubilatatu ninduten arte, Irakasle Emeritua izendatua izanik.

Hala ere, ez dut nire iharduera guztiz alde batera utzi. Artikulu eta hitzaldi batzuk argitaratu ditut eta gaur arte Euskal Herriaren Adiskideak Elkarteko Bizkaiko Batzordeko buru izan naiz.

3. Juan Ramón de Urquijo y Olanok Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen baitan burutu duen garrantzi handiko lana, bereziki haren Bizkaiko Batzordean, Adrián Celaya bezain lankide baiotsuekin eta gure historia berriaren aldi konplexu batean, zehazki jasorik aurkitzen da "Textos" (1990) eta "Crónica de un homenaje" (1992) obretan, hau idazten duenak koordinatu eta Batzorde horrek argitaratuak izan direnak. Bestalde, Celayak bere narrazio biografikoan isiltzen badu ere, oroit beharra dago hemen hark buruturiko eginkizun aparta, "Bizkaia XXI. mendearen aurrean" jardunaldien aholkulari eta partaide eraginkor gisa burutu zuena, zazpi ekitaldietan Lurralde honetako arazo zabalen alderdi ugarien erradiografia kontrastatua lortu eta elkartasunezko etorkizun jori batera bideratu beharko gintuzten lerro nagusiak formulatu nahi zirelarik. Jardunaldi horietariko bat, seigarrena (1986ko Abendua), "Bizkaiko Zuzenbide Zibilaren eguneratzea" planteatu zuena —beste ekinbide zenbaiten artean—, Celayak hain tematsuki defendatu zuen arazo baten espoleta eragingarria gertatu zen eta, azkenik, geroko ohar batean adieraziko dugunez, legegileak beretu eta onetsia izan zena (R.O.E.)

Nire bizitza akademikoa

Nire heziketarekin eta hezkuntza zentruetan bizi izandakoarekin zerikusia duten guztia hartuko dut hemen bizitza akademikotzat. Zeberiko eskolaz gauza gutxi dago kontatzeko —hartara oso denbora gutxi joan nintzen eta bertan sei edo zazpi urteko lagun bikain batzuek “piperren” atsegina, goiza errekan emateko, erakutsi zidaten—, maisu jaunaren larderiak ez baitu mintzatu nahi. Karmengo landako (Astilleros del Nervión) eskolak, Matilde Antona andrearen bidez, arrazoitzen, nire kultura guztia moldatu behar zuen eskema sortzen irakatsi zidan. Institutuak ezagupenetan sakontzen lagundu zidan eta, azkeneko ikasturteetan jadanik, zerbait garrantzitsuago irakatsi zidan, ideiak arrazoitzea eta frogarik gabe ezer ez onartzea alegia.

Ordura arte, erabiltzen nituen testuek egia osoa biltzen zutelako irudipena nuen, baina azken ikasturteetan ia zientzia guztietako hutsuneak antzematera iritsi nintzen eta kategorikoak ziruditen egiak frogatzea eskatzen nuen. Horretan logikako eskolek laguntzen zuten eta, batez ere, José María Susaeta jaunaren Natur Historiari buruzko ikastaroak, eskola haietan biologia azaltzen zuen eboluzioaren teoriari zintzo jarraituz. Horrek kritika gogorak sortarazi zituen, Bilboko egunkari batean islatu zirenak. Susaetak, alabaina, uste dut errepublikazale erradikala zela, guztien ideiekiko begirunea mantentzen zuen eta eboluzioaren teoria ideia katolikoekin guztiz bateragarria zela frogatzen saiatzen zen. Gizon gazte eta kezkatua zen, oporretan Alemaniara ikasketa-bidaiak egiten zituena; hain zuzen ere, Madril hil zuten 1936an pikete batek alemaniar bisatua zuen pasaporteak aurkitu zionean.

Zenbait urte geroago —lehen adierazia dudanez—, gauza garrantzitsu batzuk ikasi nituen Eskola Normalean, eta batez ere, metodo gisa ez dela bakarrik duda erabili behar (Descartes bertan ezagutu eta irakurri nuen), baizik eta giza bizitza guztia arazo korapilatsuek osatua dela, eta gutxitan dutela irtenbide zehatz garbia, matematikaren alorrean izan ezik; Giza Zientzietan konponketak egin beharra dagoela, erabateko soluzioak ez direlako, kasurik onenetan, hobekuntza soilak direlarik. Mundua hobea izan daiteke, bai, baina inoiz ez perfektua.

Gerra zibila, ikasketa opor guztiz luzea izan zen, denbora izan nuen ikasia nuen guztian pentsatzeko, eta garai hartan zaila zen ideiak hodei beltzez inguratuak ez izatea. Federik gabeko eszeptiko bilakatu nintzen. Denbora luze hartu zidan eszeptizismoak inoiz ez duela ezer eraikitzeke balio izan ulertzeak.

Komenigarri zait apaltasunaren aldetik, nire espediente akademikoa inoiz ez dela distiratsua izan hemen esatea. Egia da inoiz ez zidatela eskas bat jarri (salbu eta marrazkian), baina ez nuen nota garaiegirik lortu ere. Beti uste izan nuen nerretzat ikasi behar nuela eta ez irakaslearentzat. Litekeena da nota hobeak lortu ahal izatea, baina egia da, baita, inoiz ez nintzela lehenengoa izan ezein ikasgaitan.

Zuzenbide karrerak izarretatik jaustera behartu ninduen. Bizitza errealarri aurre egin behar izan nion, pauso guztietan jartzen dizkigun arazo txiki horiekin, sistema handietatik bizitza judizialean sortzen diren errealitate txikietara jaitsi beharra alegia. Zuzenbideak onartu beharreko soluzioak eskaintzen ditu, nahiz eta haietara iristeko modua beti ere problematikoa izaten den.

Deustun Zuzenbidea irakasten hasi nintzela, jasoak nituen ezagupenen beste alderdi ezezaguna azaldu zitzaidan. Ez da nahikoa Zientzia bat ezagutzea, besteri pasarazten ikasi beharra dago, eta bideratze horretan, paradoxa badirudi ere, benetan aberasten dena irakaslea da. Inoiz ez diot behar beste eskertuko Deusturi esperientzia horretarako aukera bideratu izana. Ezein irakaslek ez du menderatzen esplikatzen duen Zientzia, baina zenbaitetan gehiago irakasten da norberaren zalantzak eta dudak azaleraztean. Hala, katedraren eginbidea ikasleak aire zabalera ateratzea eta bidea erakustea delakoan nago. Ibiltzen ikasten badute, dena lortuko dute.

Garai hartan, eskola oharren moduan, inoiz inprentaratu ez ditudan zenbait testu prestatu nituen: Zuzenbide inmobiliarioa, irakaskuntzarako testuen eskasia bete nahi zuena; Jabetza eta edukitze Zuzenbidea, ohizko esku-liburuekin bat ez nentorrelako egitera behartua, baina Antonio Hernández Gil-en obra agertu zenean bere zentzua galdu zuena; Zuzenbiderako Sarrera bat, ikasketa plan berrirako Merkataritza Unibertsitatean sorturiko ikasgairako ezinbestekoa zena, etab.

Bazen gai bat Zuzenbide Zibila ikasi nuenetik kezkatzen ninduen eta nire iritzirako azterketa bat merezi zuena: Bizkaian bi legeria zibil izatea. José María Scala abokatu jaunaren hitzaldi bikainak, gero "Urbis" aldizkarian agertu zena, azterketa horri ekitera bultzatu ninduen, eta hartaz nire doktore-tesiaren gaia egin nuen, Madrilén —lehen esan dudanez— irakurri nuena 1965eko Ekainaren 19an.

Tesia moldatu ahala, gure Foru Zuzenbidearen mundu aztertugabea aurkituz joan nintzen. Mende hasierako lanak praktika hutsean oinarritzen ziren eta ez zuten behar adinako euskarri doktrinalik. Eta nire tesiaren garaian, García Royo-ren leherketa germaniar zalearen ondoren, oso gutxi ziren lantzen zutenak, Scala bera eta Manuel R. Lezón jabetza erregistratzailea salbuespenak zirela. Ezin ninteke hutsunea bete dudalako harrotu, baina bai, nire ustetan, Bizkaiko Zuzenbidearen ezagupen eta sistematizazio zientifikorako hurbiltze handiagoa lortu dut. Zuzenbide horrek lehen amestu ezineko lan alorra ireki zidan eta hainbat idazki kaleratzeko bide eta arrazoiak izan da.

Goian adierazi bezala, tesiak toki askotako —Katalunia, Aragoi, Nafarroa...— foralistekin harremanetan jarri ninduen. Foru Zuzenbideko bileretan izan nintzen Zaragoza, Huesca, Bartzelona, Tossa, Mallorca edo A Coruña, baina batez ere Jacan, Consejo de Estudios de Derecho Aragonés delakoak urtero antolatzen zituen ekitaldietan, Francoren garai guztian zehar foru gaiak aztertu zituenak. Hala, Lacruz Berdejo, Martín Ballester, Delgado Echevarría edo Roca, Puig Ferriol, Cerdá Gimeno, Massot katalanak, etab. lagun gisa hartzea zorion handia bada ere, ideia eta iritzi desberdinak trukatzeko Euskal Zuzenbidera erreialismo handiagoarekin hurbiltzeko bidea eman zidan.

Espainia guztiko lagun foralistekin Foru Zuzenbideko Institutua sortu genuen Zaragozan, hartatik gauza handiak espero genituela, baina Institutua hondoratu zen transizio demokratikoak ekarri zuen ideologia barreiadurak eraginda. Bizkaiko juristek 1978an Foru Zuzenbideko Jardunaldi batzuetarako deialdia egin genuen eta gertaera horrek Institutuaren zatiketa ekarri zuen, garai haiek bizi genituenok bakarrik uler ditzakegun ez buru ez buztanik duten arrazoiengatik. Nafarrak, gutxi batzuk salbu, gure ekimenaren aurka azaldu ziren, Institutuaren ekitaldiaren aurretik euskal lurraldeen Zuzenbideari buruzko hitzaldiak ematekoak zirela, haietako baten gaia Nafarroako Zuzenbidea zelako, beraien ustetan guztiz onartezina zena. Institutuko presidenteak haien arrangura onetsi zuen, ikurriña gure bileretan azal zedin beldurrez edo. Esan behar dut Aragoiko, Kataluniako eta Balearretako jurista gehienak, baita nafarren bat ere, gurekin bat zetozela, bai eta gure bileretan izan zirela. Institutua, alabaina, hil egin zen eta deitoratzeko gauza dela uste dut, zeren eta Konstituzioaren 149.1.5. artikulua baimendu zituen foru legeak moldatzerakoan, lurraldeen arteko komunikazio handiagoa onuragarria izango baitzen.

Garai hartan idatzi nuen Bizkaiko eta Arabako Zuzenbide Zibileko Bildumaren iruzkin liburua, Manuel Albadalejo jaunak zuzentzen zuen EDESA Argitaletxerako.

Euskal Foru Zuzenbideak unibertsitate mailan ikasi beharko litzateke hiltzen utzi nahi ez badugu; xede horretan, Deustuko Unibertsitateko irakasle talde batek idazki bat sinatu genuen Erretoreari katedra bat eskatuz. Eskaria ongi hartua izan zen eta Foru Zuzenbidea eta Autonomikoa biltzen zituen katedrako titularra izendatu ninduten eta 1982-1983 ikasturtean ikasgaien artean sartu zen.

Erabaki horrek testu bat idaztera behartu ninduen eta, hartara, bi liburuko obra egiten hasi nintzen, bata Foru Zuzenbidea eta besteak Euskal Zuzenbide Autonomikoa ukitzen zutenak. 1982-1985 bitartean idatzi nituen, benetan presaka ibili beharra zelako; ahalegin handiak egin behar izan nituen, batez ere sekula landua ez nuen Zuzenbide Autonomikoa bildu beharra zelako eta hartarako zegoen bibliografia gutxi eta barreiatua zegoelako. 1982ko udaberrian, hain zuzen ere, Unibertsitatea alde batera uztea erabakia nuen Epaitegian lana asko gehitu zelako; Errektorearen deiak lanak bikoiztera behartu ninduen, eta gainera testua idatzi behar izan nuen. Bukatu nuenean, zinez ahitua nintzen. Ordainez, ondoko ikasturtea lasaiago izango zela pentsatzen nuen, baina orduan Mitxel Unzueta adiskideak Aginpide Judizialeko Kontseilu Nagusiko batzordekide izateko izendapena onartzea eskatu zidan.

Izendapena guztiz ohoragarria zen eta nire karrera koroatzen zuen, eta eskertu behar diet Unzuetari eta proposamena egin zuten E.A.J.ko gainerako kideei, baina beldur naiz nire Kontseilu hartako iharduera inoren gogobetekorik ez izana. Inoiz ez dut agintzen jakin, ez bakarrik ez lagunekin batera, eta nire erabakiak asko hausnartu behar izaten ditut. Kontseiluko bost urteak inolako distira berezirik gabe pasa ziren.⁴ Hala eta guztiz, oso harreman onak izan nituen gainerako kontseilarekin. Aldi hartatik gogoratzen dut bereziki, Kontseiluaren ordezkari gisa, Bilbon Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusia eratu nuen eguna, hori Foru Zuzenbidearen iraupenari begira gure autonomiaren funtsezko tresna zelako.

1990ean Kontseilua utzi nuenean, Deustuko Unibertsitateak berriro hartu ninduen katedran Zuzenbide Zibileko Parte Orokorra irakasteko. Garai hartan

4. Iritzi hau zorrotzegia eta seguraski bidegabeba dela deritzat. Adiskidetasunagatik edo Euskal Herriaren aurrerapenaren aldeko jarduera komunengatik Adrián Celaya ezagutzen dugunok, ongi dakigu Aginpide Judizialeko Kontseilu Nagusian zegoen alorrean egindako lana arduratsua eta bizia izan zela. Berari zor zaizkio, hein handi batean, egitura mailan eta hornidura materialean Euskal Komunitate Autonomoaren judikaturako erakundeek ezagutu behar zituzten hobekuntzak. Orobat, beste esku hartze askori dagokionez, "ertzak kamustu nahiz" edo, zentruaren eta periferiaren arteko erlazio mekanismoak zaluagoak eta armoniatsuagoak gerta zitezen modua egin du, Zuzenbidearen jarduera egokiaren mesedetan. (R.O.E.)

1992ko Uztailaren 1eko euskal foru zibileko lege berria idatzi zen; horrek Euskal Zuzenbide Zibileko beste testu bat (edizio eguneratu soila ez dena) argitaratzera behartu ninduen. Halaber, Euskal Zuzenbide Autonomikoa eskuliburu berria idatzi behar izan nuen, autonomiak lortua zuen garapenak eta iruzkin konstituzional eta autonomiko asko agertuak zirelako.

1992ko azken eskola amaiturik, Zuzenbide Fakultateko Dekanoak ikasturte hartatik aurrera jubilatua nintzela jakinarazi zidan.

Batere ez zitzaidala gustatu aitortu behar, erabakia onartu nuen arren. Jubilatua izatea behin betiko soluzioaren itxarongelara pasatzea bezalakoa da. Eta ez dut eserita itxaron nahi. Nik segitzen dut... Eta nire barnean betiko musika aditzen dut.

Nire ideiak

